

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Mugairiko Kontserbazio Zentroko errepideen kontserbazio integrala 14,9 milioitan esleitu da 2018ra arte

Construcciones Mariezcurrena, SL da empresa esleipenduna

Viernes, 05 de diciembre de 2014

Nafarroako Gobernuak Mugairiko Kontserbazio Zentroko errepideen kontserbazio integrala Construcciones Mariezcurrena enpresari 14,9 milioi euroan esleitu dio (BEZa barne) 2018ra arte. Enpresa horrek eskaintza onena aurkeztu zuen % 8,20ko jaitzierarekin eta, kasu honetan bezala, gehieneko gastua dagoen kontratuetan, horrek esan nahi du, aurrekontu berarekin obraren portzentaje hori gehiago egiten dela.



Errepide bateko ibilgailuak.

Zentro horrek errepideetako 395 kilometro estaltzen ditu, eta haien artean dago N-121-A errepidea (Iruñetik Frantziara, Belatetik), eta zati horretan zirkulazio handia izan ohi da. Horrek, bidearen ezaugarriei eta inguruko klimatologiari erantsita, kontserbazio egokia izatea beharrezkoa egiten du erabiltzaileak segurtasun osoz ibil daitezen.

Mantentze-lanetan arreta berezia eskatzen duten beste elementu batzuk tunelak dira. 12 daude egun, eta guztiak kontuan hartuta, 7,9 kilometro osatzen dute Mugairiko zentroaren mende dauden bideetan.

Errepideak kontserbatzeko kontrol-zentroak

Nafarroako bide-sareak dituen 3.828,84 kilometroetatik, 111,95 autobideak dira; 220,71 autobiak; 25,60 bikoiztutako bideak; 50,77 prestazio handiko errepideak; 232,34 interes orokorreko sarekoak; 1.021,04 Foru Komunitatearen interesko errepideak eta 2.166,43 kilometro toki-errepideak. Errepide-sare hori mantentze-lanetarako zazpi kontserbazio-zentrotan banatuta dago: Iruña, Agoitz, Tafalla, Tuter, Lizarra, Irurtzun eta Mugairi, orain esleitu berri den kontratua.

Gainerako zentroek 2015eko urtea 2011n sinatutako 2012-2015 aldiari dagokion zenbatekoekin estalita dute. Zehazki, datorren urtean zenbateko hauek erabiliko dira: 2,9 milioi Iruñean; 3,9 Agoitzen; 2,6 Tafallan; 2,8 Tuteran; 2,4 Lizarran eta 3,5 milioi Irurtzunen (arrunta eta autobiak). Guztieta, kontserbazioa enpresa nafarrei esleitu zaie.

Kontserbazio Zerbitzuari ondorengo funtzioak agintzen zaizkio: Nafarroako errepede-sarearen kontserbazio integrala; Sarearen ustiapen eta babesa; baimenak eta zehapen-espeditateak izapidetzea; Nafarroako Errepide Katalogoa eta Ibilaldien Inbentarioa kudeatzea, bai eta haiek eguneratzea ere, eta bere jardueraren esparruan agintzen zaizkion beste funtzio batzuk.

Nafarroako bide-sarearen mantentze-lana sistema misto baten bidez egiten da, eta bertako lanak enpresa pribatuek egiten dituzte, kontserbazio edo berariazko obren kontratuen esleipendunak, dagokien lehiaketa publikoa egin ondoren. Obren kudeaketa eta kontrola funtzionario teknikoek egiten dute beti.